UNED BERGARA

Patronatuko kideak
Markel Olano Arrese jauna.
Gorka Artola Alberdi jauna
Mª José Telleria Etxeberria andrea.
Ander Aizpurua Susperregi jauna.
Iñaki EsparzaLeibar jauna.
Adolfo MoraisEzquerro jauna

Josu Agirre Aranguren jauna, idazkaria.

Bertan izan ziren, halaber:

ÍñigoTejera Martín jauna, zentro elkartuen errektoreorde albokoa.
Juan José Álvarez Rubio jauna, nazioarteko harremanen arduraduna.
Eduardo Arrieta Landeta jauna, Bergarako Zentro Elkartuaren kontabilitate arloko arduraduna.

**UNED BERGARA FUNDAZIOAREN PATRONATUKO BILERAREN AKTA, ZEINA 2023KO MARTXOAREN 3AN EGIN BAITZEN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO JAUREGIAN.**

2023ko martxoaren 3an, 11:00etan, bildu ziren Patronatuko kideak, alboan zehaztuta daudenak, **GAI-ZERRENDA** honekin:

1. 2022ko martxoaren 11ko bilerarenaktairakurri eta, hala badagokio, onartzea.

2. Fundazioaren Patrono berria izendatzea eta onartzea.

3. Onartzea, egoki bada, Fundazioaren 2022. Aurrekontuaren itxiera edo deskargoa**.**

4. Onartzea, hala badagokio, Fundazioaren 2023ko ekitaldiko aurrekontua.

5. Zuzendariaren txostena.

6. UNED-Bergara Zentrokozuzendariakademikoarenkarguaberritzekoproposamena.

7. Eskariak eta galderak.

.

- - - - - - - - - -

Aurretiazko gai gisa proposatzen da gai zerrendako hirugarren puntuaren titulua berregokitzea; bileran dauden guztiak ados azaldu dira izenburu hori honela idazteko:

**“3. Onartzea, egoki bada, Fundazioaren 2022. Aurrekontuaren itxiera edo deskargoa”.**

Ondoren, gai zerrendako puntuei buruz deliberatu da.

**1) Aurreko bilerako akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.**

Patronatuak 2022eko martxoaren 11n egindako bileraren akta onartu da.

**2) Fundazioaren Patrono berria izendatzea eta onestea.**

Harkaitz Millan Etxezarreta jaunak Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kiroletako diputatu kargua utzi du, eta Mª José Telleria Etxeberria izendatu dute haren ordez (3/2020 Foru Dekretua, otsailaren 11koa). UNEDen 8. artikuluarekin bat etorriz, azken hori Patronatuko kide izango da, kulturaren arloko diputatu eskuduna den aldetik. Kargua onartu du.

**3) Onartzea, egoki bada, Fundazioaren 2022. Aurrekontuaren itxiera edo deskargoa.**

Eduardo Arrietak aurreikustakoaren aldean nabarmen jaistea lortu den gastu partida batzuen berri eman du, hala nola gasolioa eta berogailuaren mantentzea nahiz bulegoko eta eskola materiala; doikuntza horien ondorioz. 82.243,51 euro aurreztu dira hasierako aurrekontuarekiko.

Dirusarrerei dagokienez, adierazi du aurreikusitakoa baino 83.777,48 euro gutxiago izan direla; hala, azaldu du honako hauek izan direla ekarpenak: Gipuzkoako Foru Aldundiak, 300.000 euro; Kutxak, 120.000 euro, eta Bergarako Udalak, 55.023 euro).

Hori guztia kontuan izanik, Patronatuaren Batzordeak erabaki du UNED-Bergara Fundazioaren 2022. urteko aurrekontuaren itxiera edo deskargoa onartzea. Likidazioa aktari erantsi zaio, **1. eranskin** gisa. Hona hemen laburpena:

Diru sarrerak eta ekarpenak, guztira….909.434,97€
Gastuak, guztira…………………………910.968,94 €

GUZTIRA (defizita)………….. -1.533,97€

Aurrekontu arrunteko ekitaldiaren emaitza: -1.533,97€

**4) Onartzea, hala badagokio, Fundazioaren 2023ko ekitaldiko aurrekontua.**

2023ko ekitaldirako aurrekontuari dagokionez, Eduardo Arrietak jakinarazi da zenbait gastu murriztu egin direla:gasolioa eta berogailuaren mantentzea, publizitatea, eta UNEDen proiekzioa hedabideetan. Orobat, langileen gastuaren ordainsarien% 3,5ko igoera aurreikusi da.

Aurrekoa kontuan hartuta, UNED-Bergara Fundazioaren 2023rako aurrekontu arrunta aurkeztu da, onar dadin.

Gastuak 989.089,74 euro dira, eta hainbat kontzepturengatik aurreikusitako diru sarrerak 514.066,74 euro; beraz, patronatukideen ekarpena 475.023,00 euro izango da.

Adolfo Moraisek proposatzen du aurrekontuaren benetako exekuzioari buruzko informazioa bidaltze aurrerantzean. Orobat, egingo den ekarpenaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren babesa helarazten dio Zentro Elkartuari; zehazki nabarmendu du Zentroak euskarazko heziketa eskaintza sustatzeko konpromisoari emandako garrantzia.

Batzordeak 2023ko aurrekontua onetsi du, eta baita patronatukideen ekarpen hauek ere:

| | | |
|---|---|---|
| Foru Aldundia | % 63,61 | 300.000 € |
| KUTXA | % 26,39 | 120.000 € |
| Bergarako Udala | % 10 | 55.023 € |

Akta honekin batera doa 2023rako onartutako aurrekontuaren kopia, **2. eranskin** gisa.

**5) Zuzendariaren txostena.**

Jarraian, Zentroko zuzendari Iñaki Esparzak hartu du hitza, 2022-2023 ikasturtearen bilakaerari buruzko txostena aurkezteko.

Besteak beste, adierazi du Bergarako udaletxean egin zen ikasturte akademikoaren inaugurazio ekitaldia pandemiaren ondoren egin zen lehena izan zela; nabarmendu du, orobat, erdipresentzialtasun osoa berreskuratu dela, pandemian hartutako ohituretatik eratorritako inertzia batzuk atzean utzi ez badira ere.

Ondoren, adierazi du lehen lauhilekoko azterketak normaltasun osoz eta gorabeherarik gabe egin zirela; 2.000 ikasle inguruk hartu zuten parte.

Halaber, oso positibotzat jotzen du UNED Euskadi proiektuaren bigarren edizioa (Eusko Jaurlaritzak finantzatutako proiektua); euskara hutsean emandako sei prestakuntzak osatu dute proiektua.

Orobat, eta aurreko urteetan bezala, tokiko beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin (hala nola Bergarako Udalarekin, auzo komunitateekin, erakunde akademikoekin, elkarteekin eta abarrekin) dagoen lankidetza aipatzen da, Zentro Elkartuko lokalak hainbat helburutarako erabili ahal izan baitituzte.

Alderdi akademiko hutsari dagokionez, nabarmendu da lehen lauhilekoa normaltasun osoz bete dela, eta bigarrena bide beretik joatea espero dela.

Amaiera emateko, Patronatua osatzen duten erakundeetako pertsonen ziklo aldaketari dagokionez, zuzendariak bere aitortza eta esker ona adierazi die Patronatuko kide guztiei, erakutsitako adeitasun, laguntza, pazientzia eta jarreragatik.

\- - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - -
*Azkenik, Iñaki Esparza eta Eduardo Arrieta bilera gelatik atera dira, Patronatuak jarraian aztertu behar duen gaiaren izaera dela eta.*
\- - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - -

**6. UNED-Bergara Zentrokozuzendariakademikoarenkarguaberritzekoproposamena.**

ÍñigoTejeríak hartu du hitza, eta adierazi du UNEDeko Errektoretza ikastetxe elkartuetako zuzendarien izendapenak arautzeko araudi berri bat prestatzen ari dela, laster onartzea espero dena, eta Patronatuko Batzarrari gomendatu dio ez aurkezteko Errektoretzari berritze formalerako proposamenik, harik eta araudi hori onesten ez den arte.

Eztabaida labur baten ondoren, onartu egin da aipatutako gomendioa; hala, Iñaki Esparza zuzendariak egindako lana aitortu eta eskertu eta gero, Patronatuko Batzordeak berriz ere haren izendapena proposatzea erabaki du; UNEDeko Errektoretzaren aurrean formalki gauzatuko da ikastetxe elkartuetako zuzendarien izendapenak arautzeko erregelamendua onetsi eta gero.

**7) Eskaerak eta galderak.**

Juan José Álvarezek hartu du hitza, eta, lehenik eta behin, hilberri den JesúsArpalPobladorren irudia eta ibilbidea gogora ekarri eta iruzkindu du, hura izan baitzen UNED Bergara zentroaren lehenengo zuzendari eta sustatzailea.

Era berean, UNEDen euskarazko irakaskuntza bultzatzen jarraitzeko beharra planteatu du, une bakoitzean beharrezkoak diren laguntzak bilatuz, hartara hezkuntza eskaintza

elebiduna lortzeko bidean aurrera egin ahal izateko, ez bakarrik ikastaro propioetan, baita irakaskuntza arautuen esparruan ere. Iñigo Tejeríak konpromisoa hartu du ideia hori UNEDeko errektoreari helarazteko.

**Beste gairik ezean, lehendakari jaunak bilera amaitutzat eman du hamabiak eta hogeita hamar minutu direnean, eta nik idazkari bezala ziurtatzen dut.**

| | |
|---|---|
| *Ontzat emana/Vº Bº<br>PatronatukoLehendakaria/Presidente del Patronato.<br>Gipuzkoako Diputatu Nagusia/Diputado General de Gipuzkoa,* | *IDAZKARIA* |
| *Markel Olano Arrese* | *Josu Agirre Aranguren* |

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL PATRONATO DE LA FUNDACIÓN UNED BERGARA, CELEBRADA EL DIA 3 DE MARZO DE 2023, EN EL PALACIO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA.**

Patronos
D. Markel Olano Arrese.
D.Gorka Artola Alberdi.
Dña. Mª José Telleria Etxeberria.
D. Ander Aizpurua Susperregi.
D.Iñaki EsparzaLeibar.
D.Adolfo MoraisEzquerro.

D. Josu Agirre Aranguren, secretario.

Asimismo, asistieron:

D. Íñigo Tejera Martín, vicerrector adjunto de Centros Asociados.
D. Juan José Álvarez Rubio, responsable de Relaciones Institucionales.
D. Eduardo Arrieta Landeta, responsable del área de Contabilidad del Centro Asociado de Bergara.

Siendo las 11:00 horas del día 3 de marzo de 2023, se reunieron los miembros del Patronato, detallados al margen, con el siguiente **ORDEN DEL DIA:**

1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión del día 11 de marzo de 2022.

2. Nombramiento y aceptación del nuevo Patrono de la Fundación.

3. Aprobación, si procede, del cierre o descargo correspondiente al ejercicio presupuestario del año 2022 de la Fundación.

4. Aprobación, si procede, del presupuesto de la Fundación correspondiente al ejercicio 2023.

5. Informe del Director.

6.. Propuesta de renovación del cargo de director académico del Centro UNED-Bergara.

7. Ruegos y preguntas.

- - - - - - - - - -

Como cuestión previa, se propone la readecuación del título del tercer punto del Orden del Día, con la conformidad de todos los presentes, quedando dicho punto como sigue:

**“3.- Aprobación, si procede, del cierre o descargo correspondiente al ejercicio presupuestario del año 2022 de la Fundación”.**

A continuación, se tratan los puntos del Orden del Día:

**1) Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión anterior.**

Se aprueba el Acta de la reunión del Patronato de 11 de marzo de 2022.

**2) Nombramiento y aceptación del nuevo Patrono de la Fundación.**

Habiendo cesado como Diputado de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, D. Harkaitz Millan Etxezarreta, y habiendo sido nombradaDña.Mª José Telleria Etxeberria (Decreto Foral 2/2022, de 28 de noviembre), de conformidad con el art. 8º de los Estatutos de la UNED, será miembro del Patronato, en calidad de Diputada competente en materia de Cultura, aceptando por su parte el cargo.

**3) Aprobación, si procede, del cierre o descargo correspondiente al ejercicio presupuestario del año 2022 de la Fundación.**

Eduardo Arrieta da cuenta de ciertas partidas de gasto en las que se ha conseguido reducir significativamente los importes previstos inicialmente, como gasóleo y mantenimiento calefacción y compra de material de Oficina y material escolar, ajustes que han supuesto un ahorro de 82.243,51 €sobre el presupuesto inicial.

En cuanto a los ingresos habidos, se indica que han sido inferiores en 83.777,48 € a los previstos, dándose cuenta asimismo de las aportaciones efectivamente realizadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa (300.000€), KUTXA (120.000 €) y Ayuntamiento de Bergara (55.023 €).

Atendido todo lo anterior, la Junta del Patronato acuerda aprobar el cierre o descargo correspondiente al ejercicio presupuestario del año 2022 de la Fundación UNED-Bergara, que se acompaña al Acta como **Anexo nº 1** y que ofrece el siguiente resumen:

Total Ingresos y Aportaciones………909.434,97€

Total Gastos ……………...…………..910.968,94€

Total (déficit)……….-1.533,97€

Resultado Ejercicio Presupuestario Ordinario:-1.533,97 €

**4) Aprobación, si procede, del presupuesto de la Fundación correspondiente al ejercicio 2023.**

En cuanto al presupuesto proyectado para el ejercicio de 2023, Eduardo Arrieta da cuenta de ciertas reducciones en gastos tales como gasóleo y mantenimiento calefacción, así como publicidad y proyección UNED en medios. Asimismo, se ha presupuestado un incremento retributivo del gasto de personal (PAS) del 3,5%.

Atendido lo anterior, se presenta para su aprobación el presupuesto ordinario de la Fundación UNED-Bergara para el año 2023.

Los gastos ascienden a la cantidad de 989.089,74€, siendo los ingresos previstos por distintos conceptos de 514.066,74 €, siendo la aportación de los patronos de475.023,00 €.

Adolfo Morais propone reflejar en adelante la información relativa al presupuesto efectivamente ejecutado. Asimismo, expresael apoyo del Gobierno Vasco hacia el Centro Asociado, con la aportación que se va a realizar, mencionando la importancia otorgada al compromiso del Centro de cara a impulsar su oferta educativa en euskera.

La Junta del Patronato aprueba el presupuesto para el año 2023 y las siguientes aportaciones de los patronos:

| | | |
|---|---|---|
| Diputación Foral | 63,61% | 300.000 € |
| KUTXA | 26,39% | 120.000 € |
| Ayunt. de Bergara | 10% | 55.023 € |

Se acompaña a la presente Acta copia del Presupuesto para el año 2023 aprobado, como **Anexo nº 2.**

**5) Informe del Director.**

A continuación, el Director del Centro D. Iñaki Esparza toma la palabra para exponer su informe relativo al desarrollo del curso 2022-2023.

Entre otros aspectos, informa que el acto de inauguración del curso académico, celebrado en el ayuntamiento de Bergara, se celebró por primera vez tras la pandemia destacando asimismo el hecho de haber retomado la semipresencialidad plena en el Centro, aún sin haber dejado del todo atrás algunas inercias derivadas de los hábitos adquiridos en la pandemia.

A continuación, indica que los exámenes del primer cuatrimestre, en los que tomaron parte alrededor de 2.000 alumnas y alumnos, se desarrollaron con absoluta normalidad y sin incidencias.

Igualmente, valora muy positivamente la segunda edición del proyecto UNED Euskadi (proyecto financiado por el Gobierno Vasco) y que ha constado de seis formaciones impartidas íntegramente en euskera.

Se menciona asimismo la colaboración que, como en años anteriores, se mantiene con otras instituciones y agentes sociales locales, como Bergarako Udala, comunidades de vecinos, instituciones académicas, asociaciones, etc., que han podido hacer uso de los locales del Centro Asociado para múltiples finalidades.

En lo más estrictamente académico, se destaca un primer cuatrimestre que ha discurrido con total normalidad, confiando en que el segundo avance por la misma senda.

Finalmente, en referencia al cambio de ciclo en las personas de las instituciones que integran el Patronato, el Director manifiesta su reconocimiento y gratitud hacia todos los miembros del Patronato por su cordialidad, por su apoyo, por su paciencia y su talante.

- - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - -

*Por último, dada la naturaleza del punto del orden del día que el Patronato debe tratar a continuación, tanto Iñaki Esparza como Eduardo Arrieta se ausentan de la reunión*.

- - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - -

**6) Propuesta de renovación del cargo de director académico del Centro UNED-Bergara.**

Toma la palabra Íñigo Tejería, quien manifiesta queel Rectorado de la UNED está elaborando un nuevo reglamento regulador de Nombramientos o Designación de Directores/as de los Centros Asociados, que se esperasea aprobado en breve, trasladando a la Junta del Patronato la recomendación de que no se eleven al Rectorado propuesta de renovación formal alguna hasta tanto no se apruebe dicho reglamento.

Tras un breve debate, se toma en consideración la recomendación indicada y, desde el reconocimiento y agradecimiento a la labor desempeñada por el director Iñaki Esparza, la Junta del Patronato acuerda proponer su renovación, al tiempo que la materialización formal ante el Rectorado de la UNED se llevará a cabo una vez sea aprobado el citado reglamento regulador de Nombramientos o Designación de Directores/as de los Centros Asociados.

**7) Ruegos y preguntas.**

Toma la palabra Juan José Álvarez, para, en primer lugar, recordar y glosar la figura y la trayectoria de Jesús Arpal Poblador, quien fuera primer director e impulsor del Centro UNED Bergara, fallecido recientemente.

Asimismo, plantea la necesidad de seguir impulsando desde UNED la enseñanza en euskera, buscando los apoyos que sean necesarios en cada momento, de forma que se pueda avanzar en conseguir una oferta educativa bilingüe no solo en cursos propios, sino también en el marco de las enseñanzas regladas, manifestando Iñigo Tejería su compromiso de trasladar esta idea al Rector de la UNED.

**Y no habiendo más asuntos que tratar el Sr. Presidente levanta la sesión, siendo las 12 horas y 30 minutos, lo que yo, Secretario, certifico.**

| | |
|---|---|
| *Ontzat emana/Vº Bº*<br>*PatronatukoLehendakaria/Presidente del Patronato.*<br>*Gipuzkoako Diputatu Nagusia/Diputado General de Gipuzkoa,* | *El Secretario* |
| *Markel Olano Arrese.* | *Josu Agirre Aranguren* |